Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko apirilaren 29a, ostirala — 80 — Viernes, a 29 de abril de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ZUMAIAKO UDALA

*Iragarkia*

Alkatetzaren 2022ko apirilaren 19ko 478/2022 dekretuaren bidez honako ebazpen hau hartu da:

1. Gizarte zerbitzuen alorrean lan egiten duten elkarteei diru-laguntzak emateko 2022 urteko diru-laguntzen deialdia egitea, ebazpen honekin batera agertzen den eranskineko testuarekin.

2. Aipatutakoa deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko web orrian argitaratzea.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete interesdunek, zuzenean, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dute, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hala ere, interesdunek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Udal honen Alkatearen aurrean, hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete.

Zumaia, 2022ko apirilaren 20a.—Iñaki Ostolaza Esnal; alkatea.
(2441)

ERANSKINA

*Gizarte zerbitzuei dagozkien gaien inguruan lan egiten duten elkarteei diruz laguntzeko 2022 urteko deialdia.*

1. *Xedea.*

Deialdi honen xedea ondoren adierazten diren diru-laguntzak arautzea da:

— Gizarte Zerbitzuei dagozkien gaien inguruan lan egiten duten Elkarteen jarduerak egiteko ematen direnak.

— Zumaian edo Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokaturik dauden eta gizarte zerbitzuen eremuan espezifikoki diharduten elkarteei, beraien funtzionamendu gastuetarako direnak.

— Diru laguntzaren kontzeptu guztiak 2022. Urtean zehar burutu beharko dira.

2. *Oinarri arautzaileak.*

Honako hauek arautuko dituzte diru laguntza hauek:

— Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.

— Diru laguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa.

## AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA

*Anuncio*

Por Decreto de Alcaldía 478/2022 de 19 de abril de 2022 se ha adoptado la siguiente resolución:

1. Efectuar convocatoria del año 2022 para la concesión de subvenciones a las asociaciones que desarrollan sus actividades en el ámbito de los servicios sociales, con el texto que figura en el anexo de la presente resolución.

2. Publicar la mencionada convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Alcalde de este Ayuntamiento, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello, sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Zumaia, a 20 de abril de 2022.—El alcalde, Iñaki Ostolaza Esnal.
(2441)

ANEXO

*Convocatoria del año 2022 para la concesion de subvenciones a las asociaciones que desarrollan sus actividades en el ámbito de los servicios sociales.*

1. *Objeto.*

El objeto de esta convocatoria es regular los siguientes conceptos de subvención:

— La concesión de subvenciones dirigidas a las Asociaciones para la realización de actividades relacionadas con los servicios sociales.

— La concesión de subvenciones destinadas a cubrir gastos de mantenimiento de funcionamiento ordinario de aquellas asociaciones ubicadas en Zumaia o el Territorio Histórico de Gipuzkoa, cuya finalidad está directamente relacionada con las funciones de los Servicios Sociales.

— Todos los conceptos de subvención se deberán realizar a lo largo del año 2022.

2. *Bases reguladoras.*

Estas subvenciones se regirán por:

— Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

— Reglamento General de Subvenciones, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.

EK\CV GAO-I-2022-02441

— Zumaiako Udalak eta bere erakunde autonomoek diru laguntzak emateko ordenantza orokor arautzailea (2020ko abuztuaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 151. zk.).

— Zumaiako Udalaren eta Kirol Patronatuaren Diru laguntzen Plan Estrategikoa (2021eko martxoaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 59 zk.).

— Gizarte zerbitzuen alorrean lan egiten duten elkarteei diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak (2013ko apirilaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 140 zk.).

*3. Aurrekontuko diru-hornidura.*

Deialdi honetan zehazten diren diru-laguntzak aurrekontuko honako partidatik emango dira: 1 0500.481.231.00.02 2022 (290)

Aipatutako diru laguntzarako gehienez 14.928 € banatuko dira oinarri espezifikoak diotena betetzen duten eskaintzen artean.

*4. Eskabideak aurkezteko tokia eta epea.*

Eskabideak Zumaiako Udal Erregistroan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein modutan aurkeztuko beharko dira.

Erregistro elektronikoaren bidez ere aurkeztu ahal izango dira, udalaren egoitza elektronikoan sartuta, haren webgunearen bidez (www.zumaia.eus).

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

*5. Eskabideak eta aurkezteko beharreko agiriak.*

Eskabideak deialdi honen I. eranskinean agertzen den eredu normalizatuaren bidez egingo dira.

Zumaiako Udalak, Nisaeren Nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horretaz gain, euren jarduerak Gizarte Zerbitzuen eskumenen arloan egiten dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkarteentzako diru laguntzaren tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik, elkarreragileak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. Artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administraziok egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikuluak adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren ildotik, Zumaiako Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetako diru laguntza eskuratu ahal izateko, NISAeren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

— Elkartearen arduran duen pertsonaren NANa edo agiri baliokidea.

— Zerga betebeharrak beteak dituela.

— Gizarte Segurantzaren aurreko betebeharrak egunean dituela.

— Ordenanza general reguladora de la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Zumaia y sus Organismos Autónomos (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 151, de 11 de agosto de 2020).

— Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento y del Patronato de Deportes de Zumaia. (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 59, de 30 de marzo de 2021).

— Bases reguladoras de la concesión de subvenciones a las asociaciones que desarrollan sus actividades en el ámbito de los servicios sociales (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 140 de 23 de julio de 2013).

*3. Dotación presupuestaria.*

La subvenciones a conceder a través de la presente convocatoria serán con cargo a la siguiente partida del presupuesto: 1 0500.481.231.00.02 2022 (290)

Para la subvención mencionada se destinarán como máximo 14.928 € que se distribuirán entre las solicitudes que cumplan con lo dispuesto en las bases específicas.

*4. Lugar y plazo de presentación de solicitudes.*

Las solicitudes se presentarán en el Registro municipal de Zumaia o por cualquiera de los medios previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Se podrán presentar, asimismo, por registro electrónico accediendo a la sede electrónica del Ayuntamiento a través de su página web (www.zumaia.eus).

Las solicitudes deberán presentarse en el plazo de un mes a partir del día siguiente a la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

*5. Solicitudes y documentación a presentar.*

Las solicitudes se formularán mediante el modelo normalizado que figura en el anexo I de esta convocatoria.

El Ayuntamiento de Zumaia mediante el Nodo de Nisae, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración, así como cualquier otra requerida para la tramitación administrativa de la presente subvención destinada a las entidades y asociaciones sin ánimo de lucro que realicen sus actividades en el ámbito de competencias del Área de Servicios Sociales. Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada no se oponga de forma expresa al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concrete en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por el interesado a cualquier Administración.

Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno del intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de estas.

En este sentido, el Ayuntamiento de Zumaia va a verificar los siguientes requisitos para acceder a la subvención de esta convocatoria desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones, Nisae:

— DNI o documento equivalente de la persona responsable de la entidad.

— Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias.

— Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones frente a la Seguridad Social.

EK\CV GAO-I-2022-02441

Zumaiako Udalak ofizioz egiaztatuko du udalarekiko betebeharrak betetzen direla.

Hona hemen Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistro Nagusiaren bidez egiaztatuko dituenak:

— Eusko Jaurlaritzako Elkarte eta Entitateen Erregistroan inskribatuta dagoelako egiaztagiria.

— Eskaera egiten duen erakundearen estatutuak.

Era berean, Udalak ofizioz egiaztatuko du, Zumaiako Udaleko elkarteen erregistroan izena emanda duten elkarteekiko, ondorengoa:

— Identifikazio fiskaleko kodea.

Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

Eskabidearekin (I eranskina) batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) II eranskina, behar bezala beteta.

b) Diru laguntzaren xede den jarduera zehatzaren memoria. Jarduera urte osorako den edo puntuala den zehaztuz.

c) Erakunde edo organismoen aurrean edo, hala badagokio, emandako diru laguntzen eskaerei buruzko adierazpena (III. eranskina).

d) Zinpeko aitorpena, diru laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik ez duela eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ez duela dioena, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoarekin bat etorriz.

e) Erakundearen edo elkartearen gastuen eta diru-sarreren urteko aurrekontua.

f) Diru laguntzaren xede den programaren gastuen eta diru-sarreren aurrekontua.

g) Emakume eta gizonen berdintasunaren ikuspuntua noraino kontuan hartzen den jardueran adierazten duen agiria (IV eranskina).

h) Hizkuntzaren erabilera (V. eranskina).

i) Hirugarrenaren altaren banku-ziurtagiria (VI eranskina).

Eskabidea ez badago behar bezala beteta edo ez baditu ezarritako baldintzak betetzen, instrukzio organoak errekerimendua egingo dio eskatzaileari, gehienez ere hamar egun baliodun luzaezineko epean gabezia konpontzeko, eta azalduko du, horrela egiten ez badu, ulertuko dela atzera egiten duela bere eskabidean, eta besterik gabe artxibatuko da, lehendik Ebazpena emanda, APELen 21. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Organo izapidegileak edozein unetan beharrezkoa ikusten duen jatorrizko dokumentazioa edo dokumentazio osagarria jaso ahal izango du hobeto egiaztatzeko betetzen direla dirulaguntza hauek arautzen dituzten arauetan eskatutako baldintzak.

*6. Diru-laguntzak adjudikatzeko balorazio irizpideak.*

Diru laguntza eskaerak baloratzeko garaian, honako irizpideak hartuko dira kontuan:

Programa hartzaileak (10 puntu).

— Elkarteko bazkideei bideratuak: 5 puntu.

— Biztanleari orokorrean bideratuak: 10 puntu.

Bi puntuek elkar baztertzen dute.

La certificación de estar al corriente con el Ayuntamiento de Zumaia se realizará de oficio.

Se comprobarán a través del Registro General de Asociaciones de Gobierno Vasco:

— Certificado de inscripción en el Registro General de Asociaciones del Gobierno Vasco.

— Estatutos de la entidad solicitante.

Del mismo modo, el Ayuntamiento verificará de oficio, respecto de aquellas asociaciones que estén inscritas en el registro de asociaciones del Ayuntamiento de Zumaia:

— Código de Identificación Fiscal.

En el caso en que no fuera posible la realización de la consulta a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, se podrá solicitar excepcionalmente a la persona solicitante que presente la documentación en cuestión.

Deberán acompañarse a la solicitud (anexo I) los siguientes documentos:

a) Anexo II, debidamente cumplimentado.

b) Memoria de la actividad concreta para la que se solicita la subvención. Detallando si la actividad es para todo el año o es puntual.

c) Declaración sobre solicitudes de subvención realizadas ante instituciones, organismos, o en su caso, de las que estuvieran otorgadas (anexo III).

d) Declaración jurada de no estar sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni de hallarse incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

e) Presupuesto anual de gastos e ingresos de la entidad o asociación.

f) Presupuesto de gastos e ingresos del programa para el que se solicita la subvención.

g) Documento en el que se señale el grado de incorporación de la perspectiva de igualdad de mujeres y hombres en la actividad.

h) Uso lingüístico (anexo V).

i) Certificado bancario de alta de tercero (anexo VI).

Si la solicitud no estuviera debidamente cumplimentada o no reuniera los requisitos establecidos, el órgano instructor requerirá a la persona solicitante para que, en el plazo máximo e improrrogable de diez días hábiles subsane la falta, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, archivándose sin más trámite, previa Resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21 de la LPAC.

El órgano instructor podrá recabar en cualquier momento la documentación original o complementaria que considere necesaria para acreditar mejor el exacto cumplimiento de las condiciones exigidas en las normas reguladoras de estas subvenciones.

*6. Criterios de valoración para la adjudicación de las subvenciones.*

Los criterios que se tendrán en cuenta a la hora de valorar las solicitudes, serán los siguientes:

Orientación del programa (10 puntos).

— Dirigidos a los propios afectados o asociados: 5 puntos.

— Dirigidos a la población en general: 10 puntos.

Ambos puntos son excluyentes.

EK\CV GAO-I-2022-02441

Elkartearen funtzioak (20 puntu).

— Udal Gizarte Zerbitzuetako esku hartze eremuaren funtzioak osatzea: 10 puntu.

— Zumaiako Gizarte Zerbitzuekin izandako lankidetza: 10 puntu.

Jardueraren eragina (50 puntu).

— Elkartea Zumaiakoa izatea edo ordezkaritza bat izatea: 10 puntu.

— Zerbitzuak, programak eta ekintzak Zumaian garatzea: 10 puntu.

— Zumaiakoak diren bazkide kopurua: 5 puntu,

1-5 bazkide: 1 puntu.

6-10 bazkide: 2 puntu.

11-15 bazkide: 3 puntu.

16-20 bazkide: 4 puntu.

21etik gora bazkide: 5 puntu.

— Elkartean urtean zehar zerbitzua jasotzen duen zumaiar kopurua: 10 puntu.

1-3 pertsona: 3 puntu.

4-6 pertsona: 6 puntu.

7-9 pertsona: 9 puntu.

10 pertsonatik gora: 10 puntu.

— Boluntarioen mobilizatzeko gaitasuna: 15 puntu.

Emakume eta gizonezkoen partaidetzaren arteko parekidetasuna (10 puntu).

— Genero ikuspuntua kontuan izanda egindako ekintzak: 5 puntu.

— Elkarteko zuzendaritza batzordean emakume eta gizonezkoen parte-hartzean parekidetasuna: 5 puntu.

Euskararen tratamendua eta erabilera (10 puntu).

— Euskararen tratamendua ekintzen gauzatzean eta hedapenean: 5 puntu.

— Euskararen erabilera elkartearen ohiko funtzionamenduan: 5 puntu.

Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira diruz lagunduko.

*7. Eskaerak baloratzeko eta diru-laguntza emateko prozedura.*

Eskaeren azterketa eta ebaluazioa zerbitzu teknikoek egingo dute. Behin zerbitzu hauek txosten teknikoa eginda, proposamena Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak baloratuko du eta ondoren, Alkate Dekretuaren bitartez zehaztuko da ebazpena. Erabakian, onuradunari 10 eguneko epea emango zaio alegazioak aurkeztu ditzan. Ez badu inongo alegaziorik aurkezten, diru-laguntza esandako baldintzetan onartzen duela ulertuko da.

Ebazpena emateko gehienezko epea 6 hilabetekoa izango da deialdi argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Epe horretan ebazpena eman eta jakinaraziko ez balitz, eskaera ez dela onartu ulertu beharko da.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Nolanahi ere, nahi izanez gero, hilabeteko epean berraztertzeko errekurtsoa aurkezteko aukera izango da ebazpena eman zuen organoaren aurrean, edo zuzenean aurkaratzeko administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean.

Diru-laguntza ematea lehia erregimenean erabakiko da, eta kasu bakoitzean ezarritako irizpideen arabera, diruz lagunduta-

Funciones de la asociación (20 puntos).

— Grado de complementariedad con las funciones de los Servicios Sociales Municipales: 10 puntos.

— La colaboración mantenida con los Servicios Sociales Municipales: 10 puntos.

Impacto de la acción (50 puntos).

— Asociaciones con sede o delegación en el municipio: 10 puntos.

— Prestación de servicios, programas y actividades en el propio municipio: 10 puntos.

— El n.º de vecinos y vecinas de Zumaia asociadas: 5 puntos.

1-5 personas: 1 punto.

6-10 personas: 2 puntos.

11-15 personas: 3 puntos.

16-20 personas: 4 puntos.

Más de 21 personas: 5 puntos.

— El n.º de vecinos y vecinas de Zumaia que durante el año reciben el servicio de la asociación: 10 puntos.

1-3 personas: 3 puntos.

4-6 personas: 6 puntos.

7-9 personas: 9 puntos.

Más de 10 personas: 10 puntos.

— Capacidad de movilización de las personas voluntarias: 15 puntos.

Paridad entre la participación de mujeres y hombres: (10 puntos).

— Introducción de la perspectiva de género en las acciones realizadas: 5 puntos.

— Paridad entre hombres y mujeres que participan en la junta directiva de la asociación: 5 puntos.

Tratamiento y uso del euskara (10 puntos).

— Tratamiento del euskara en la realización y difusión de las acciones: 5 puntos.

— Uso del euskara en el funcionamiento de la asociación: 5 puntos.

Aquellos proyectos que no obtengan una puntuación mínima de 50 puntos no serán subvencionados.

*7. Procedimiento para la valoración de las solicitudes y concesión de la subvención.*

Los servicios técnicos se encargarán del examen y la evaluación de las solicitudes. Emitido informe por parte de los servicios técnicos, la propuesta será valorada en la Comisión de Servicios Sociales y posteriormente se resolverá por medio de decreto de alcaldía. En la notificación se le concederá al beneficiario un plazo de 10 días para presentar alegaciones. Si no presenta ninguna alegación se entenderá que acepta la subvención y las condiciones en las que se ha concedido.

El plazo máximo para dictar resolución será de 6 meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la convocatoria. Transcurrido dicho plazo sin que se haya dictado y notificado la resolución, las peticiones se entenderán desestimadas.

Contra dicha resolución, que agota la vía administrativa, se podrá interponer recurso potestativo de reposición, en el plazo de un mes, ante el mismo órgano que lo hubiera dictado o ser impugnado directamente ante el orden jurisdiccional contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses.

La concesión de la subvención se efectuará en régimen de concurrencia competitiva, de manera que tan sólo se seleccio-

EK\CV GAO-I-2022-02441

ko jardueren kalitatea eta bideragarritasuna bermatzeko modukoa den diru-laguntza kopurua bakarrik aukeratuko da.

*8. Diru-laguntzaren ordainketa.*

Diru-laguntzaren zenbateko osoak ezingo du izan, inoiz ere, bera bakarrik edo beste herri-administrazio eta erakunde publiko edo pribatuek emandako diru-laguntzarekin batuta, onuradunak egin behar duen jardueraren kostuarena baino handiagoa.

*9. Diruz lagun daitezkeen gastuak.*

Diruz lagun daitezkeen gastuak dira diruz laguntzen diren jarduerak egiteko egin behar direnak, baldin eta oinarri hauetan ezarritako epean egiten badira.

Diru laguntzaren eskabidean berariaz adierazitako jarduerak bakarrik lagunduko dira diruz.

Alderdi horri dagokionez, beti bete beharko da diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 31. artikulua (azaroaren 17ko 38/2003 Legea).

*10. Diru-laguntzaren ordainketa.*

Diru-laguntza emango dela jakinarazi eta gero, onartutako zenbatekoaren % 60 ordainduko da. 2023ko urtarrilaren 15a baino lehen aurkeztu behar diren ekintzen memoria eta frogagiriak egiaztatu ondoren, gainerako % 40 ordainduko da.

Halaber, ekonomia-ekitaldi baten barruan emango diren laguntzen bolumen osoak ez du izendatutako dirua gaindituko.

Ordaindu beharreko kantitatea handiagoa bada aurrekontuan izendatutako kopurua baino, orduan, banaketa proportzionala egingo da.

Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, diru laguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

*11. Diru-laguntzaren justifikazioa.*

Diru-laguntza jaso duen entitateak diru-laguntzaren zenbateko osoaren justifikazioa aurkeztu behar du telematikoki Zumaiako Udalaren egoitza elektronikoan.

Horretarako, honako agiriak aurkeztu beharko dituzte:

— Egindako eta diruz lagundutako ekintzak azaltzeko memoria.

— Ekintza horien agiri grafikoak edo ikus-entzunezkoak (argazkiak, bideoak, DVDak, txartelak, programak eta abar).

— Proiektuaren eskaeraren araberako memoria ekonomiko justifikatzailea, egindako gastuen jatorrizko ziurtagiriekin (fakturak gehi transferentzi bidez ordaindu izanaren agiriak). Aurkeztutako egiaztagirien (fakturen) zerrenda zenbakitua. Diru-sarreren eta gastuen balantze ekonomikoa.

— Diruz lagundu den jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo diru laguntzen zerrenda xehatua, haien zenbatekoak eta jatorria adieraziz.

nará, conforme a los criterios fijados en cada caso, un número de ayudas que asegure la calidad y viabilidad de las actividades subvencionables.

*8. Cuantía de la subvención.*

El importe total de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente, o en concurrencia con subvenciones o ayudas de otras administraciones públicas, o de otros entes públicos o privados, supere el coste de la actividad a desarrollar por la persona beneficiaria.

*9. Gastos subvencionables.*

Serán subvencionables todos aquellos gastos necesarios para la realización de las actividades objeto de esta subvención, siempre y cuando hayan sido efectuados dentro del plazo comprendido en las bases de esta convocatoria.

Solamente se subvencionarán las actividades que hayan sido señaladas expresamente en la solicitud de la ayuda.

En todo lo referente a este asunto, será de obligado cumplimiento lo establecido en el artículo 31 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

*10. Abono de la subvención.*

Una vez comunicada la concesión de la subvención, se abonará el 60 % de la cantidad concedida. El resto se abonará una vez que se presenten la memoria de las actividades y comprobados los justificantes que se presentarán antes del 15 de enero de 2023.

Asimismo, el volumen total de las ayudas que se concederán en un ejercicio económico, no superará la cantidad consignada.

Cuando la cantidad a pagar sea superior a la dotación presupuestaria total consignada en el presupuesto, se procederá al prorrateo proporcional a la cantidad que corresponda a cada solicitante.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado o disminuido, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

*11. Justificación de la subvención.*

La entidad beneficiaria deberá presentar la justificación total del importe de la subvención telemáticamente a través de la sede electrónica del Ayuntamiento de Zumaia.

Para ello deberá presentar:

— Memoria explicativa de las actividades realizadas y subvencionadas.

— Documentación gráfica o audiovisual de la realización de las mismas. (fotografías, vídeos, DVD, carteles, programas, etc.).

— Memoria económica justificativa de acuerdo con la solicitud del proyecto, con justificantes originales del gasto realizado (facturas así como justificantes del pago realizado mediante transferencia). Relación numerada de los justificantes presentados. Liquidación económica de ingresos y gastos.

— Relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.

Zumaiako Udala

2022IDLD0001-B22/0478

**I. ERANSKINA** / ANEXO I

**DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO ORRIA**
SOLICITUD DE SUBVENCIÓN

**NORBERAREN DATUAK/** DATOS PERSONALES

| | | |
|---|---|---|
| **Izen-abizenak/**Nombre y apellidos | **NAN-AIZ-Pas.A/** DNI-NIE-Pas. | ☐ **Emakumea**Mujer<br>☐ **Gizona/**Hombre<br>☐ **Ez-bitarra/**No binomio |
| **Interesduna naiz/**Soy la persona interesada<br>**Honako hau ordezkatzen dut/**Represento a: | **NAN-AIZ-Pas.**<br>**DNI**-NIE-Pas. | |
| **Elkartearen egoitza** / Domicilio social<br><br>**Elkartean duen kargua / Cargo que ocupa en la entidad** | | |

**JAKINARAZPENETARAKO DATUAK/**DATOS PARA LAS NOTIFICACIONES

| | | |
|---|---|---|
| **Kalea,portala,pisua,eskua/** Calle,portal,piso,mano | **Herria/**Población | **P.K./**C.P. |
| **Probintzia/**Provincia | **Tel.Mugikorra/**Tel. Móvil | **E-posta/**E-mail |
| **NOLA JASO NAHI DITUZU ESKABIDE HONEN ERANTZUNAK (Telematikoki jaso nahi badituzu ziurtagiri digital bat beharko duzu(**B@kq, **FNMT...) eta telefono mugikor eta posta elektronikoko eremuak bete behar dituzu)/**COMO SE QUIERE RECIBIR LAS NOTIFICACIONES DE ESTA INSTANCIA (Para recibirlas telemáticamente es necesario tener un certificado digital (B@kq, FNMT...) y rellenar los campos de telefono móvil y correo electrónico | **Telematikoki** Telemática | **Posta arruntez** Correo ordinario |

**BANKU DATUAK(diru-laguntza sartzeko)/** DATOS BANCARIOS (para el ingreso de la subvención

| **Banketxea /** Entidad bancaria | **Kontu korrontearen zk. (IBAN barne)/** Número de cuenta (con IBAN) |
|---|---|
| | |

**Diru-laguntza eskaeraren datuak:/**Datos de la petición de subvención:

| **Proiektu-jardueraren izena**<br>Denominación del proyecto-actividad<br><br>**Elkartearen mantentze gastuak. Zehaztu zertarako**<br>Gastos de mantenimiento de la asociación. Detallar para qué | **Eskatzen den zenbatekoa**<br>Importe que se solicita |
|---|---|

**Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA**
www.zumaia.eus •**e-mail:** udala@zumaia.eus

EK\CV GAO-I-2022-02441

Zumaiako Udala

2022IDLD0001-B22/0478

**BAIMENAK**/PERMISOS
(Baimentzen ez den kasuetan,egoera egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko da/En caso de no autorizar,habrá que presentar la documentación que acredite la situación)

**Nire erantzukizunpean adierazten dut nik ordezkatzen dudan elkartea ez dagoela sartuta diru-laguntzak lortzeko oinarri orokorretako 11. artikuluan aipatzen diren debeku arrazoietan.**
Declaro bajo mi responsabilidad que la entidad a la que represento no está incursa en los supuestos de prohibición para la obtención de subvenciones a las que se refiere el artículo 11 de las Bases Generales.
**BAI**/SI **EZ**/NO

| **BITARTEKOTZAKO PLATAFORMATIK ESKATUKO DIREN ZERBITZUAK** | **SERVICIOS QUE SE SOLICITARÁN MEDIANTE LA PLATAFORMA DE INTERMEDIACIÓN DE DATOS** |
|---|---|
| **Eskatzaileari informatzen zaio, Zumaiako Udalak baldintzen datuak zuzenean egiaztatuko dituela datuen arloko bitartekotzako plataformatik eta beste administrazioetatik. Hala ere, egiaztatze horri uko egiteko aukera izango du eskatzaileak. Kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.** | **Se informa al solicitante, que el ayuntamiento de Zumaia va a verificar los requisitos desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones. El solicitante tendrá opción a oponerse a esa verificación, en cuyo caso deberá presentar la documentación pertinente.** |
| • Gipuzkoako Foru Aldundia - Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta<br><br>• Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra - Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta<br><br>Aurka nago eta eskatutako dokumentazioa aurkezten dut | • Diputación Foral de Gipuzkoa - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias<br><br>• Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones con la Seguridad Social<br><br>Me opongo, y aporto la documentación requerida. |

| | |
|---|---|
| **ESKAERA HONEN ERANTZUNA ELE BIETAN JASO NAHI DUT (Ezer adierazten ez bada, euskara hutsean egingo da)/**SOLICITO QUE SE RESPONDA A ESTA INSTANCIA EN EUSKERA Y CASTELLANO.<br>(Si no marca la casilla, la respuesta será en euskera) | |

**Sinadura**/Firma

**Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA**
**www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus**

Zumaiako Udala

2022IDLD0001-B22/0478

| Datu babesari buruzko oinarrizko informazioa | | Información básica sobre protección de datos | |
|---|---|---|---|
| **Tratamenduaren Arduraduna** | Zumaiako Udala<br>Foruen plaza 1, 20750, Zumaia (Gipuzkoa)<br>Datuak Babesteko Ordezkaria: Dbo@zumaia.eus | **Responsable del tratamiento** | Ayuntamiento de Zumaia – Zumaiako Udala<br>Foruen plaza, 1, 20750, Zumaia (Gipuzkoa)<br>Delegado/a de protección de datos: dbo@zumaia.eus |
| **Helburua** | Udalaren eta haren mendeko erakundeen aurrekontu-, ekonomia- eta kontabilitate-jardunaren ondoriozko informazio pertsonala kudeatzea. | **Finalidad** | Gestionar la información personal derivada de la actuación presupuestaria, económica y contable del Ayuntamiento y sus entes dependientes. |
| **Zilegitasuna** | DBEDBLO 8.1 eta 8.2. artikuluak: legezko betebeharragatik, interes publikoagatik edo botere publikoak baliatzeagatik buruturiko datuen tratamendua. | **Legitimación** | Artículos 8.1 y 8.2 LOPDGDD: tratamiento de datos personales en cumplimiento de obligaciones legales y en cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos. |
| **Komunikazioen hartzaileak** | Zumaiako Udalak Zerga Administrazioari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta dagozkion administrazio publikoei jakinarazi ahal izango dizkie zure datuak, tratamendu honen esparruan aplikagarria delako legez hala ezartzen bada. | **Comunicación de datos** | El Ayuntamiento de Zumaia podrá comunicar tus datos a la Administración Tributaria, a la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como a las Administraciones Públicas pertinentes en caso de que legalmente así se establezca por ser de aplicación en el ámbito de este tratamiento. |
| **Eskubideak** | Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurkatzeko, transferitzeko eta mugatzeko eskubideak erabiltzeko eskubidea du, bai eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazio bat aurkezteko ere. | **Derechos** | Tiene derecho a ejercer sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, portabilidad y limitación, así como presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección Datos. |
| **Informazio gehigarria** | Datuak babesteari buruzko informazio gehigarria eta zehatza kontsulta dezakezu gure webguneko datuak babesteari buruzko atalean: Https://zumaia.eus/eu/udala/datuen_babesa | **Información adicional** | Puede consultar la información adicional y detallada sobre protección de datos en el apartado de protección de datos de nuestra página web: https://zumaia.eus/es/ayuntamiento/Proteccion_de_datos |

Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

Zumaiako Udala

2022IDLD0001-T22/0050

**II. ERANSKINA**/ANEXO II

**DIRULAGUNTZA: PROIEKTUAREN DATUAK**
SUBVENCIONES: DATOS DEL PROYECTO

| **Elkartearen izena** / Nombre de la entidad | **IFK** / CIF |
|---|---|
| | |
| **Udal Gizarte Zerbitzuetako esku-hartze eremuaren funtzioak zein eratan osatzen diren** / Grado de complementariedad con las funciones de los Servicios Sociales Municipales: | |
| | |
| **Zumaiako Gizarte Zerbitzuekin izandako lankidetza** / Colaboración mantenida con los Servicios Sociales Municipales: | |
| | |
| **Programa-proiektu-jardueraren izena** / Denominación del programa-proyecto-actividad<br>**Eskatutako dirulaguntza bat etorriko da dirulaguntzaren justifikazioarekin** / La subvención solicitada coincidirá con la justificación de la misma: | |
| **Programa-proiektu-jarduera** □ **Izena:**<br>Programa-proyecto-actividd Título:<br>**Elkartearen mantentze gastuak** □ **Zehaztu zertarako**..............................................<br>Mantenimiento de la asociación<br><br>(**Apartadu honetan beharrezkoa da, dirulaguntza ze azalpenean eskatzen den zehaztea** / En éste apartado es preciso detallar el concepto para el que se solicita la subvención) | |
| **Programa-proiektu-jarduera nori zuzenduta dagoen** / Orientación del programa-proyecto-actividad: | |
| **Bazkideei** / A los propios afectados asociados □<br>**Herritarrei orokorrean** / A la población en general □ | |
| **Programa-proiektu-ekintza non garatuko den** / Dónde se desarrollará el programa-proyecto-actividad: | |
| | |
| **Zumaiakoak diren bazkide kopurua** / Número de personas asociadas de Zumaia: | |
| | |
| **Urtean zehar zerbitzua jasotzen duen zumaiar kopurua** / Nº de personas de Zumaia que reciben el servicio durante el año: | |
| | |
| **Boluntarioen zeregina: elkartean, proiektuan, ekintzan** / Labor de las personas voluntarias: en la asociación, el proyecto, actividad: | |
| | |
| **Genero ikuspuntua kontuan izanda, egindako ekintzak** / Introducción de la perspectiva de género en las acciones realizadas: | |
| | |

**Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA**
**www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus**

EK\CV GAO-I-2022-02441

Zumaiako Udala

2022IDLD0001-T22/0050

| **Elkarteko zuzendaritza batzordean emakume eta gizonen parte-hartzean parekidetasuna** / Paridad entre hombres y mujeres en la junta directiva del a Asociación: |
|---|
| |
| **Euskararen tratamendua ekintzen hedapenean eta gauzatzean** / Tratamiento del euskera en IU+0061 realización y difusión de las acciones: |
| |
| **Udalari agiriak nola aurkeztuko zaizkion (memoriak, etab.)** / Uso del euskera en la documentación que se presentará al Ayuntamiento: |
| □ Euskaraz □ Ele bietan |

**Aurrekontua (zer gastu eta diru-sarrera espero diren; zer diru-sarrera dituen erakundeak egitasmoa finantzatzeko; zenbat diru eskatu dien beste erakundeei):**
Presupuesto (concretar gastos e ingresos previstos. Especificar todos los ingresos de la entidad para el proyecto y los solicitados a otras administraciones):

| **Gastuak (azalpena)** / Gastos (concepto) | **Zenbatekoa (BEZ barne)/** Importe (IVA incluido) |
|---|---|
| | |
| **Gastuak, guztira** / Total gastos | |
| **Sarrerak (sorburua)** / Ingresos (procedencia) | **Zenbatekoa (BEZ barne) /** Importe (IVA incluido) |
| | |
| **Sarrerak, guztira** / Total ingresos | |

**Zumaian,**
**(Eguna** / Fecha)

***Elkartearen zigilua** / Sello de la entidad*

**Ontzat emana, Lehendakaria (izen-abizenak eta NAN-AIZ adieraziz)**
Visto Bueno, el/la Presidente/a (con nombre, apellidos y DNI-NIE)

**Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA**
**www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus**

EK\CV GAO-I-2022-02441

Zumaiako Udala

2022IDLD0001-T22/0050

**III. ERANSKIN/**ANEXO III

**DIRULAGUNTZAK: BESTE LAGUNTZA ESKABIDEEN AITORPENA**
SUBVENCIONES: DECLARACIÓN SOBRE OTRAS SOLICITUDES DE AYUDAS

**Elkartearen datuak: / Datos de la entidad:**

| **Elkartearen izena** / Nombre de la entidad | | | **IFK** / CIF |
|---|---|---|---|
| | | | |
| **Elkartearen egoitza** / Domicilio social | | **Herria** / Población | **PK** / CP |
| | | | |
| **Tel.** | **Faxa** / Fax | **Helbide elektronikoa** / E-mail | |
| | | | |

**Ordezkoa: /** Representante:

| **Izen-abizenak** / Nombre y apellidos | **NAN-AIZ- IFK** / DNI-NIE-CIF |
|---|---|
| | |
| **Elkartean duen kargua** / Cargo que ocupa en la entidad | |
| | |

**Jarduera hauetarako eskatutako edo jasotako beste laguntzak (jaso badira, zenbatekoa azaldu):**
Otras ayudas solicitadas o recibidas para estas actividades (si se han recibido, especificar importe):

| **Administrazioa edo erakundea** / Administración o entidad | **Jasotako zenbatekoa** / Importe recibido |
|---|---|
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| ☐ **Ez dugu jaso edo eskatu beste inongo laguntzarik** / No hemos recibido ni solicitado ninguna otra ayuda | |

**Nire erantzukizunpean goian azaldutako datuak egiazkoak direla adierazten dut.**

Declaro bajo mi responsabilidad que los datos arriba indicados son ciertos.

**Zumaian**:

**Elkartearen zigilua** / Sello de la entidad

**Ontzat emana, Lehendakaria (izen-abizenak eta NAN-AIZ adieraziz)**
Visto Bueno, el/la Presidente/a (con nombre, apellidos y DNI-NIE)

**Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA**
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

EK\CV GAO-I-2022-02441

Zumaiako Udala

2022IDLD0001-T22/0050

**IV ERANSKINA** / ANEXO IV

**Dirulaguntzak** / Subvenciones
**Emakume eta gizonen berdintasunaren ikuspuntua noraino kontuan hartzen den jardueran**
Grado de incoporación de la perspectiva de igualdad de mujeres y nombres en la actividad

**Zumaiako Udalean, eta haren menpeko erakundeetan gizonak eta emakumeak berdinak izateko zeharreko ekintzak ezartzeko jarraibideen arabera, baloratuko da, *aurkeztutako eskaintzan eta diruz lagundutako proiektu edo jarduera, genero-ikuspegia txertatzea, oro har.***

De acuerdo con las Instrucciones para la implementación de acciones transversales de igualdad de mujeres y hombres en el Ayuntamiento de Zumaia y organismos dependientes del mismo, *"Se valorará de forma general: la integración de la perspectiva de género en la oferta presentada y en el proyecto o actividad subvencionada".*

**Ikarteari buruzko datuak:** / Datos sobre la Asociación:

| **Elkartearen izena** / Nombre de la entidad | | | | **IFK** / CIF |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| **Ordezkararien izen-abizenak** / Nombre y apellidos de la persona representante | | | | **NAN-AIZ** / DNI-NIE |
| | | | | |
| **Elkartean duen Kargua** / Cargo que ocupa en la entidad | **Sexua** / Sexo | | | |
| | ☐ **Emakumezkoa** / Mujer | ☐ **Gizonezkoa** / Hombre | ☐ **Beste generoak**[1]/ Otros géneros | |
| **Zuzendaritza Batzordea, sexuaren arabera** / Distribución por sexos de la Junta Directiva | | | **Lehendakaria** / /Presidente-a | |
| **Emakumezkoak** / Mujeres %_____<br>**Gizonezkoak** / Hombres % _____<br>**Beste generoak**[1] / Otros géneros % _____ | | | **Emakumezkoa** / Mujer ☐<br>**Gizonezkoa** / Hombre ☐<br>**Beste generoak**[1] / Otros géneros ☐ | |
| **Bazkide-kopurua** / Nº personas socias | **Bazkideak, sexuaren arabera** / Distribución por sexos de las personas socias | | | |
| | **Gizonezkoak**/ Hombres_ | **Emakumezkoak**/Mujeres_ | **Beste generoak**[1]/ Otros géneros_ | |

**Proiektuari buruzko datuak:** /Datos sobre el proyecto:

| **Jardueraren onuradunak, sexuaren arabera** / Distribución por sexos de las personas beneficiarias de la actividad | | |
|---|---|---|
| **Emakumezkoen** / Mujeres %____ | **Gizonezkoen**/Hombres %____ | **Beste generoen**[1] / Otros géneros %____ |
| **Jarduerarako kontratatutako pertsonak, sexuaren arabera** / Distribución por sexos de las personas contratadas para la actividad | | |
| **Emakumezkoen** / Mujeres %____ | **Gizonezkoen**/Hombres %____ | **Beste generoen**[1] / Otros géneros %____ |
| **Jardueran parte hartuko duten boluntarioak, sexuaren arabera**<br>Distribución por sexos del personal voluntario que participará en la actividad | | |
| **Emakumezkoen** / Mujeres %____ | **Gizonezkoen**/Hombres %____ | **Beste generoen**[1] / Otros géneros %____ |

**Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA**
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

EK\CV GAO-I-2022-02441

Zumaiako Udala

2022IDLD0001-T22/0050

| | | |
|---|---|---|
| **Kontuan hartu al da emakumeek jasaten duten desberdintasun soziala? Horri aurre egiteko neurririk hartu al da?**<br>¿Se ha tenido en cuenta la desigualdad social que afecta a las mujeres y medidas para afrontarla? | | |
| • **Hasierako diagnostikoan** / En el diagnóstico de partida | ☐ **Bai** / Si | ☐ **Ez** / No |
| • **Proiektuaren helburuetan** / En los objetivos del proyecto | ☐ **Bai** / Si | ☐ **Ez** / No |
| • **Proposatutako jardueretan** / En las actividades propuestas | ☐ **Bai** / Si | ☐ **Ez** / No |
| • **Ebaluazioan** / En la evaluación | ☐ **Bai** / Si | ☐ **Ez** / No |
| **Aurreikusi al da inolako neurririk proiektuan parte hartzen duten pertsonen bizitza pertsonal eta familiarra jarduerarekin uztartzeko?**<br>¿Se prevé alguna medida para facilitar la conciliación de la vida personal y familiar de las personas participantes en el proyecto? | | |
| ☐ **Bai** / Si | ☐ **Ez** / No | |

**Aditzera ematen dut, nire erantzunkizunpean, ordezkatzen dudan erakundea ez dagoela sartuta inolako administrazio- edo zigor-prozeduratan sexuagatiko diskriminazioa dela eta.**
**Bestalde, hitz ematen dut inor kanpoan uzten ez duen hizkera erabiliz egingo dela diruz lagundutako jarduerak sortzen duen komunikazio guztia eta komunikazio horretan erabilitako irudietan, bermatuko dela emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta estereotipatu gabea, 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneakoak, ezarritako betebeharra betetze aldera.**

**Declaro** bajo mi responsabilidad que la entidad a la que represento no se halla incursa en ningún procedimiento administrativo o penal por incurrir en discriminación por razón de sexo.
Asimismo, me comprometo a realizar toda la comunicación generada por la actividad subvencionada en un lenguaje inclusivo y garantizar la presencia equilibrada y no estereotipada de mujeres y hombres en las imágenes que se utilicen, según establece la Ley de Igualdad de Mujeres y Hombres 4/2005, de 18 de febrero.

**Zumaian:**

**Elkartearen zigilua** / Sello de la entidad

**Idazkariaren sinadura** (izen-abizenak eta NAN-AIZ adieraziz)
Firma del/de la Secretario/a (con nombre, apellidos y DNI-NIE)

**Ontzat emana, Lehendakaria** (izen-abizenak eta NAN-AIZ adieraziz)
Visto Bueno, el/la Presidente/a (con nombre, apellidos y DNI-NIE)

Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

Zumaiako Udala

2022IDLD0001-T22/0050

**V ERANSKINA**/ANEXO V
**EUSKARAREN ERABILERA** / USO DEL EUSKERA

| **JARDUERAREN IZENA** / TITULO DE LA ACTIVIDAD: | | | |
|---|---|---|---|
| | **Euskaraz**<br>Euskara | **Ele bitan**<br>Bilingue | **Oharrak**<br>Notas |
| **Kartelak, esku-orriak…**<br>Carteles, folletos… | | | |
| **Txostena, agiriak, memoria…**<br>Informe, documentación… | | | |
| **Aurkezpena**<br>Presentación | | | |
| **Besterik**<br>Otros | | | |

**ELKARTEAREN OHIKO ERABILERA** / USO HABITUAL DE LA ASOCIACIÓN:

| | **Euskaraz**<br>Euskara | **Ele bitan**<br>Bilingue | **Gaztelaniaz**<br>Castellano | **Oharrak**<br>Notas |
|---|---|---|---|---|
| **Zuzendaritzako bilerak**<br>Reuniones de la directiva | | | | |
| **Urteko batzarrak**<br>Asambleas anuales | | | | |
| **Deialdiak eta agiriak**<br>Convocatorias y documentos | | | | |
| **Aktak eta memoriak**<br>Actas y memorias | | | | |
| **Webgunea eta sare sozialak**<br>Sitio web y redes sociales | | | | |
| **Besterik**<br>Otros | | | | |

| **Jarduera bakoitzean euskararen erabilera bermatzeko irizpideak baditu elkarteak? Zein?**<br>¿Tiene la asociación criterios para garantizar el uso del euskera en las actividades? ¿Cuáles? |
|---|
| |

| **Elkarteak parte hartzen du euskara bultzatzeko ekimenetan? Zertan?**<br>¿Participa la asociación en alguna iniciativa para fomentar el euskera? ¿en cual? |
|---|
| |

Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

EK\CV GAO-I-2022-02441

Zumaiako Udala

2022IDLD0001-T22/0050

**VI ERANSKINA/ANEXO VI**

**HIRUGARREN INTERESDUNARI ALTA EMATEA**
ALTA DE TERCEROS/TERCERO INTERESADO

**A** **HIRUGARRENA IDENTIFIKATZEKO DATUAK**
DATOS IDENTIFICATIVOS DEL TERCERO

**NAN/AIZ/IFZ**
DNI/NIE/CIF

**Izena eta bi abizenak/Sozietatearen izena**
Nombre y dos apellidos/Razón social

**Helbidea**
Domicilio

**Posta-kodea** — Código postal
**Herria** — Población

**Lurraldea**
Provincia

**B** **BANKUAREN DATUAK**
DATOS BANCARIOS

**BANKUA (IBAN kode eta guzti)**
BANCO (con código IBAN)

**BULEGOA**
AGENCIA

**KOD** — DC
**K/KORRONTEA** — C/CORRIENTE

**JABEA**
TITULAR

**Oharra: Kontu korrontearen jabeak hirugarrena bera behar du izan.**
Nota: El titular de la cuenta tiene que ser el mismo que el tercero interesado.

| **C Bankuaren adostasuna** Conforme banco | **D Hirugarren interesdunaren adostasuna** Conforme tercero interesado | **E Udalaren onespena** VºBº Ayuntamiento |
|---|---|---|
| **Sinadura eta zigilua** Sello y firma | **Sinadura eta zigilua** Sello y firma | **Sinadura eta zigilua** Sello y firma |

**Zumaian, 2022ko**
(**Eguna** / Fecha)

**Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA**
**www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus**